BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

4963

EBAZPENA, 2026ko azaroaren 10ekoa, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariarena, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia ebazten duena.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendariaren 2026ko abuztuaren 28ko Ebazpenaren bidez, memoria demokratikoa berreskuratzeko liburuak argitaratzeko dirulaguntzen 2026. urteko deialdia egiten da eta deialdi hori arautzen duten oinarriak onartzen dira (EHAA, 2026ko irailaren 21ekoa, 180 zk.).

Ebazpen horren 14. artikuluan izendatutako epaimahai kalifikatzaileak dirulaguntzak emateko egindako proposamena aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea I. eranskinean ageri diren entitateek atzera egiteko aurkeztutako eskaerak, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bigarrena.– Baztertzea II. eranskinean ageri diren entitateek aurkeztutako eskaerak, eranskinean bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Laguntzak ematea III. eranskinean zerrendatutako entitateei (zenbatekoak eranskinean bertan adierazten dira). De minimis laguntzak direnez, Batzordeak 2023ko abenduaren 13an onartutako 2023/2831 (EE) Erregelamendua bete beharko dute, de minimis laguntzei Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 2831. zk., 2023-12-15ekoa).

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan.

Bilbao, 2026ko azaroaren 10a.

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria,
ALBERTO ALONSO MARTIN.

I. ERANSKINA

ATZERA EGIN DUTEN ESKATZAILEEN ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Atzera egitea
003	Jose Maria Arinas	«Huellas de otro tiempo»	Interesdunak atzera egin du prozeduran.
005	Erein, S.A..	«Yoyes, bere lehiotik»	Interesdunak atzera egin du prozeduran.

II. ERANSKINA

BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

Kodea	Izena	Proiektua	Baztertzeko arrazoia
009	Pedro María Ulazia Ibarzabal	«Saturrarán: Natura, Memoria eta Artea»	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa, deialdiaren 15.2 artikuluan ezarritakoa.
011	Jon Mikel Nuñez Mellina	«Geolocalización visual, documentación y difusión histórica y población civil durante la Guerra Civil en Euskadi»	Ez du betetzen deialdiaren 2. artikuluan ezarritakoa; proiektua ez dago edizioaren edo maketazioaren azken fasean.

III. ERANSKINA

ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK

Kodea	Izena	Proiektua	Dirulaguntza (euro)
001	Francisco Javier de la Colina Aranceta	«No todos eran maquis»	2.235,75
002	Fundación Indalecio Prieto	«Indalecio Prieto y Casals contra Franco»	2.856,52
004	Jose Maria Arinas Garcia	«Mujeres armadas»	2.552,45
006	Ramón Rubial fundazioa	«Ramón Rubial Cavia. 120 Aniversario»	2.955,00
007	Aiert Zubigarai Kapelastegi	«Gerria Elorrixon. Emakumeen memoria»	4.100,00
008	Eusko Ikaskuntza – Sociedad de Estudios Vascos	«Sopela (1936-1948) Guerra Civil y Primer Franquismo»	2.900,00
010	Kultur Soleil S. Coop.	«Euzkadi Confidencial. Nazis, fascistas y espías en la Guerra Civil y en la II Guerra Mundial»	2625,00
		Guztira	20.224,72